



## **DIRU-LAGUNTZA DEIALDI PUBLIKOA, NORGEHIAGOKA ERREGIMENEAN, GARAPEN BIDEAN DAUDEN HERRIALDEETAN HIRU URTEKO GARAPENERAKO LANKIDETZA-PROIEKTUAK EGITEKO (2018-2020).**

---

1. Administrazio deitzailea: ZIZUR NAGUSIKO UDALA - AYUNTAMIENTO DE ZIZUR MAYOR.
2. Organo emailea: Alkatetza
3. Alor kudeatzailea: Hiritarrendako Zerbitzuen Batzordea
4. Instrukzio-organoa: Hiritarrendako Zerbitzuen Batzordeko ordezkaria.
5. Prozedura: Norgehiagoka bidezkoa
6. Izapidetzea: Aurretziazkoa

### ***1.-Deialdiaren xedea***

Deialdi honen xedea da 2018., 2019. eta 2020. urteetara gehienez ere bost proiektu finantzatzen laguntzea; hiru urtetan zehar garatzeko garapenerako lankidetzaproiektuak izanen dira, garapen bidean dauden herrialdeetako biztanleen oinarrizko beharrianak asebetetzen lagunduko dutenak.

Proiektuen lehentasunezko eragin eremuak honako hauek izanen dira:

- Oinarrizko hezkuntza
- Oinarrizko osasuna
- Uraren arazketa eta hornikuntza
- Giza Eskubideen defentsa, bereziki, genero-berdintasunaren aldeko borroka eta emakumeen eskubideak sustatzen dituztenak.

Laguntza jaso dezaketen herrialdeak Nafarroako Gobernu II. Plan Zuzentzailean aipatzen direnak dira.

### ***2.- Helburua***

Gizakien garapena eta garapen jasagarria babestea, herritarren autogestioa eta autosufizientzia sustatzen duten proiektuen bidez.

### ***3.- Diruz lagundu daitezkeen proiektuen baldintzak, betekizunak eta epeak:***

Laguntza ekonomikoa eskatu duten proiektu edo jarduerak honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Deialdi honetan jasotako xede eta helburuetara egokiturik egonen dira.

- b) Finantziazioaren %20, gutxienez, proiektuaren funts propioetik, beste administrazio batzuetatik edo beste entitate batzuetatik egitea.
- c) Diru-laguntza ematen den unetik gehienez ere hiru urteko epean gauzatzea.
- d) Proiektuak hiru urtekoak izatea.
- e) Proiektua aurrera eramateko ardura duen entitatearen helburu eta esperientziari buruz informazio aski ematea.
- f) Proiektuari buruzko ezagutza zabala erakustea eta azaltzea zer harreman izanen diren bertako bazkidearekin edo laguntza jasoko duen komunitatearekin, diruz lagundutako ekintzen jarraipena egiteko.
- g) Proiektua eginen den lekuan bertako bazkide bat (aurkako alderdia) izatea.

GGKE bakoitzak gehienez ere lagundutako finantzaketarako eskaera bat egin dezake deialdi honetan.

#### ***4.- Aurrekontu-kredituak, diru-laguntzen gehieneko zenbateko osoa eta banakako zenbatekoa***

##### ***4.1.- Deialdiaren guztizko zenbatekoa, gehienez, kreditu erabilgarrien barruan:***

Hiru urtetan zehar proiektu horiek diruz laguntzeko aurreikusitako kopurua 45.000,00 eurokoa izanen da.

Honako deialdi honek aurretiazko izapidetzea dauka eta, beraz, 2017ko aurrekontu ekitaldian onartu arren, ebazpena eta gastuen gauzatzea 2018ko ekitaldian eginen dira.

Xede horretarako, aurreikusten da 2018ko ekitaldirako partida 15.000,00 eurokoa izanen dela eta 1 2399148900 partidaren kargura eginen dela. Era berean, 2019ko eta 2020ko partidetan gehienezko kopuru berbera aurreikusten da, betiere udal-aurrekontuetan ekitaldi bakoitzerako onartutako kredituaren mende egonik. Nolanahi ere, diru-laguntzak ematea ebazpenaren unean kreditu egokia eta nahikoa egoteak baldintzatuko du.

Emandako diru-laguntzek ezin izanen dute gainditu deialdi honetan ezarritako zenbatekoa.

Diru-laguntzak emateko ebazpenak zehaztuko du aurrekontu osoaren zer kopuru dagokion aurkeztutako proiektuari. Zenbateko hori kopuru berdinetan banatuko da proiektuak iraunen duen hiru urteetan; beraz, lehenengo urtean kopuruaren heren bat eman eta ordainduko da, eta gainerakoaren ordainketa hurrengo urteetan kreditu nahikoa eta egokia egotearen mende geratuko da. Kopuru horien ordainketa deialdi honen 16. klausulak aurreikusitakoaren arabera eginen da.

##### ***4.2.- Banakako gehieneko zenbatekoa***

Entitate onuradun bakoitzari eman beharreko zenbatekoak ezin izanen du urteko Udal Aurrekontuetan aurreikusitako kreditua gainditu.

Emandako diru-laguntzek harreman zuzena izanen dute funts erabilgarriekin eta aurkeztutako proiektuak lortutako puntuazioarekin, eta horretarako ehuneko-tarteak ezarriko dira.

### **5.- *Pertsona edo entitate onuraduna izateko bete beharreko baldintzak***

Onuradun izaera eskuratu ahal izanen dute diru-laguntzak ematea oinarritzen duen egoeran dauden pertsonak eta entitateek eta jarraian aurreikusitako baldintzak biltzen dituztenek, betiere baldin eta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 13. artikuluan ezartzen diren debeku-arrazoietakako baten barnean ez badaude.

Baldintza zehatzak:

- a) Legearekin bat eratutako pertsona juridikoak izatea eta irabazi-asmorik ez izatea. Eskaerak aurkezteko epea amaitzen denean, izena emanda eduki beharko dute Nafarroako Gobernuako Elkartearen Erregistroan edo Espainiako Garapenerako Lankidetzako Agentziaren Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundearen Erregistroan.
- b) Egoitza edo ordezkari iraukorra Nafarroako Foru Komunitatean izan beharko dute.
- c) Aurkeztutako helburu sozialak betetzeko egitura, esperientzia eta antolaketa nahikoa izatea eta proposatutako helburuak lortzeko beharrezkoak diren esperientzia eta gaitasuna akreditatu ahal izatea.
- d) Proiektuak garatuko diren lekuan bertako bazkide edo aurkako alderdi bat izatea, proiektuak materialki gauzatzeko.
- e) Estatutuetan berariaz jaso egotea garapenerako lankidetzaren dela elkartearen xedea.
- f) Aurretik diru-laguntzak jaso baditu, bai deialdi honetan, bai Garapenerako Lankidetzako Udal Programako beste deialdi batean, horiek jasotzeak dakartzan betebeharrak eguneraturik izan beharko ditu. Hori horrela ez bada, Deialdi honetatik kanpo geratuko da.
- h) Egunean edukitzea zergei nahiz Gizarte Segurantzari buruzko betebeharrak.

Lekuko Bazkideen baldintzak.

Lekuko bazkideek edo kontrako alderdiek, herrialde onuradunaren legearen araberrako pertsona juridikoek, honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Hiru urteko antzinatasuna/esperientzia izatea.
- b) Proiektua gauzatzeko behar den egitura eta antolaketa-maila izatea.

### **6.- *Pertsona edo entitate onuradunaren betebeharrak***

Proiektu zehatz bat egiteko diru-laguntza ematen zaien entitateak honako hauek betetzera behartuta daude:

- a) Proiektua diru-laguntza emateko betebeharratan azaldu bezala egitea. Diru-laguntza osoa edo, hala bada, horren lehenbiziko zatia jaso eta handik hiru hilabetera hasiko da proiektua, beranduenez. Entitatea betebeharrak honetatik libre geldituko da baldin eta aparteko edo ezinbesteko arrazoiengatik ezinezkoa bada hastea. Arrazoi horiek justifikatu egin beharko ditu eta Zizur Nagusiko Udalak onartu.
- b) Tributu-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak eguneraturik dauzkala jakitea. Zizur Nagusiko Udalarekiko zerga-betebeharrak egunean dauzkala ofizios egiaztatuko da.

- c) Organo-emaileari baldintzak eta betekizunak betetzen direla justifikatzea, baita diruz lagundutako jarduera gauzatzen dela eta diru-laguntza ematerakoan zehaztu zen xedea betetzen dela ere, eta, horretarako, dagozkien jarraipen- eta justifikazio-txostenak aurkeztea.
- d) Organo emaileak egin ditzakeen egiaztapen-probak betetzeko prest egotea, baita kontrol-organo eskudunek egin ditzaketen finantzei buruzko beste edozein egiaztapen edo kontrol ere, eta horretarako, aurreko jardueri buruz eskatzen ahal zaion behar adina informazio ematea.
- e) Jasotako funtsak nola erabili diren justifikatzen duten agiriak gordetzea, baita agiri elektronikoak ere, egiaztapen eta kontrol jardueretan eska baitaitezke.
- f) Jasotako diru kopurua itzuli beharko da, baldin eta proiektua egiteko ezintasuna izanez gero edo diru-laguntza jasotzeko ezarritako baldintzak ez bada betetzen, edota kasu horretan dagokion justifikazioa ez bada egiten; horri gehitu beharko zaio diru-laguntza ordaintzen den momentutik exijitzen den berandutze-interesa.
- g) Ayuntamiento de Zizur Mayor-Zizur Nagusiko Udaletxeari baimena ematea proiektuaren garapena dibulgatzeko, garapenerako lankidetzari dagokionez Nafarroako iritzi publikoa sentsibilizatzea sustatzeko.
- h) Proiektuaren dibulgazioan eta iragarpenetan diru-laguntzaren jatorria publiko egitea. Zabalpen idatzian eta grafikoan Ayuntamiento de Zizur Mayor-Zizur Nagusiko Udaletxeko logotipoa erabili beharko da, eta diruz lagundutako entitatearen irudiaren tamaina eta baldintza beretan agertu beharko da. Lekuko kontrako alderdiari edo bazkideari espreski adierazi beharko zaio zein den diru-laguntzaren jatorria.
- i) Diru-laguntza jasotzeko kontuan hartu diren egoera, baldintza eta betekizunetan sortu diren aldaketa guztiak Zizur Nagusiko Udalari komunikatzea eta horietarako autorizazioa eskatzea, baita diruz lagundutako jarduera finantzatzen duten diru-laguntzen, diru-sarreraren edo baliabideen zenbatekoa adieraztea ere. Jakinarazpen hori datuak ezagutu bezain laster egin beharko da eta, edonola ere, diru-laguntzaren justifikazioa egin aurretik.
- j) Zizur Nagusiko Udaletxeari jakinarazi beharko dio GGKE eskatzaileak proiektuan zehar izaera juridikoan izandako aldakeak: estatutuak, entitatearen ordezkarri legala, etab.
- k) Zizur Nagusian egiteko jarduerak diseinatzea, Udaletxeko ahalik eta alor gehien (Hezkuntza, Berdintasuna, Gazteria, etb.) eta herritarrak oro har inplikaturik sentsibilizazio jarduera eta zereginen bidez eta honako informazio hau lantzen duten jardueren bidez: herrialdeen, sexuen eta talde desberdinen arteko desoreka ekonomiko, sozial eta kulturalak, desoreka horiek pertsonen bizibaldintzetan dituzten ondorioak. Horrela, Zizur Nagusiko herritarren artean elkartasuna eta parte-hartzea sustatuko da, komunitatean jarrera eta jokaera aldaketak bultzatzeko.
- l) Zizur Nagusiko Udaletxearen diru-laguntzaren kargura erositako material, ekipamendu eta horniketa guztiak proiektua garatuko den herrialdean egingen dira edota inguruko herrialdeetan eta bertako produktuak erositakoak. Betebehar hau betetzea ezinezkoa bada, Zizur Nagusiko Udaletxeari baimena eskatu beharko zaio idatzi arrazoitu baten bidez.
- k) Igorritako funtsetatik sortzen diren etekin finantziarioak edo interesak proiektuarekin edo diruz lagundutako jarduerarekin zuzenean lotura duten gastuak ordaintzeko aplikatuko dira. Kasu horretan, onuradunak bankuko dokumentu baten bidez akreditatu beharko ditu gastu horiek eta justifikazio-ekonomikoan adierazi beharko du zer kontzeptutarako erabili dituen

GGKEak edo entitate onuradunak diru-laguntza ematerakoan zehaztu den helburu horretan erabili beharko du jasotako ondasunak. Ondasun horiek erregistro publiko batean inskribagarriak izatekoan, zazpi urteko epe minimo batean erabili beharko ditu eta gainerako ondasunen kasuan, bi urteko epean. Erregistro publiko batean inskribagarriak diren ondasunen kasuan, baldintza hori idazkian jasota geratu beharko da, baita emandako diru-laguntzaren kopurua ere, dagokion erregistro publikoan honako izen-emateen gaia helburu izanda.

## ***7.- Proiektuaren aldaketak***

Garapenerako lankidetzako proiektuek –dituzten ezaugarri eta testuinguruak direla eta–, aurreikusten zailak diren zenbait egoera izan ditzakete, eta horrek hasierako proposamena eta jarduerak errealitate berri horretara berregokitzeko beharra sor dezake:

A) Diru-laguntzaren zenbatekoa eskatutako kopurua baino baxuagoa bada, proiektua eta haren aurrekontua finantziario aukera errealekara doitu daiteke. Aurkeztutako aldaketak diru-laguntzaren helburua, baldintzak eta xedea errespetatu beharko ditu eta ezin izango ditu txertatu jarduera edo ekipamendu berriak, ezta hasierako eskaeran gehitu gabekoak ere. Kudeaketa-unitateak entitateei jakinaraziko die zein den aldaketa horiek aurkezteko epea; gutxienez, hogeitun egun naturalekoa izanen da. Epe hori amaituta, kudeaketa-unitate horrek aurkeztutako aldaketak baloratuko ditu eta emaitzak jakinaraziko dizkie entitate onuradunei.

B) Baldin eta proiektuaren garapena era larrian aldatu edo zaildu dezaketen aurreikusi ezin diren egoerak badaude, proiektuan aldaketak egiten ahalko dira. Soilik honako hauei eragiten dieten aldaketak hartuko dira aldaketa funtsezkotzat: helburuak edo/eta horietatik esperotako emaitzak, herritar onuradunak, eremuaren kokapena, lekuko bazkidea eta eskaeran aurkeztutako aurrekontuarekiko % 20ko edo gehiagoko desberdintasuna. Horiei dagozkien aldaketak egiteko, kudeaketa-unitateari eskaera arrazoitu bat aurkeztu beharko zaio, aldaketa horiek justifikatzen dituen egoera aldatu eta berehala eta aldaketak egin aurretik, Programa honek onar ditzan.

Esku-hartzea egiten den bitartean sortzen diren gainerako gertakariak eta aldaketak jarraipen-txostenetan edo amaierako txostenetan jakinaraziko dira.

## ***8.- Eskabideak non eta noiz aurkeztu***

### ***8.1.- Eskabideak aurkezteko tokia***

Diru-laguntzetarako eskaerak honako toki hauetan aurkeztu ahal dira: Zizur Nagusiko Udalaren Erregistro Orokorrean (Erreniega parkea, z/g), edo, bestela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako beste edozeinetan.

### ***8.2.- Eskabideak aurkezteko epea***

Eskabideak aurkezteko epea hilabete batekoa izanen da, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aitzina. Epea luzaezina izanen da. Adierazitako epetik kanpo aurkeztutako eskabideak baliogabetu egingen dira.

### **8.3.- Eskabideak eta agiriak nola aurkeztu**

Eskabideak Zizur Nagusiko Udalaren instantzia ereduaren bidez aurkeztu beharko dira, interesdunek sinaturik edo zuzenbidean baliodun den edozein bide baliatuta ordezkari-tza egiaztatzen duen pertsona batek sinaturik, eredu gisa eskainitako I. Eranskinaren arabera. Eskabidearekin batera, deialdi honen 8.4. atalean aipatzen diren agiriak eta argibideak aurkeztu beharko dira.

Eskaera batek ez baditu betetzen deialdi honetan ezarritako betekizunak, interesdunari eskatuko zaio gehienez ere hamar eguneko epe luzaezinean zuzendu dezala edo nahitaezko agiriak aurkez ditzala, eta ohartaraziko zaio ezen, hala egin ezean, ulertuko dela eskaera bertan behera utzi duela, betiere alde aurretik ebazpena emango delarik, urriaren leku Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 21. artikulua aurreikusitakoarekin bat.

Baldin eta galdatutako agiriak Zizur Nagusiko Udalaren edo haren mendeko erakunde autonomoren baten eskuetan badaude, haien ordezkari-tzarako aitortpen bat aurkeztu ahalko da indarrean direla egiaztatze-ko, eta bertan adieraziko da noiz eta zein organo edo bulegotan aurkeztu ziren edo, hala badagokio, nor eman zituen edo non dauden jasota; hori guztia, betiere, bost urte ez badira bete agiri-iek dagokien prozedura amaitu zenetik.

Diru-laguntza jasotzeko eskabidea aurkezteak berekin dakar deialdi honen oinarriak oso-osorik onartzea.

### **8.4.- Eskatzaileek aurkeztu beharreko agiriak**

GGKEk edo Elkarteek honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute proiektuarekin batera:

a) Entitate eskatzailearen nortasuna egiaztatzen duten agiriak, eta, halakorik balitz, haren izenean ari den ordezkariaren nortasuna egiaztatze-koak.

- Estatutuak

- Nafarroako Gobernu-ko Elkarte- en Erregistro-ko edo Espainia-ko Nazio-arte-ko Lankidetzarako Agentzia- ren GGKE- en Erregistro-ko izen- emate-aren ziurtagiria, eta kasu horretan Nafarroako Foru Komunitatean ordezkari-tza bat ireki izana berariaz aipatu beharko du.

- Identifikazio Fiskaleko Txartela.

- Entitatearen ordezkari legala adierazten eta akreditatzen duten dokumentuak.

b) Erantzukizuneko aitortpena, deialdi honen II. Eranskina eredu hartuta, ziurtatzeko eskatzaileak bete egiten dituela onuradun izateko Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eskatzen dituen betekizun orokorrak zein deialdi honek eskatzen dituen berariazkoak, eta ezein debeku-ziok ez duela ukitzen, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 13.2. artikuluan aipatzen direnen artean.

c) Ogasuneko eta Gizarte Segurantzako agiriak, egiaztatzeko pertsona eskatzaileak bere betebeharren berri duela. Egiaztagiria ezin izango dira eskabideak aurkezteko epea iraungi baino hiru hilabete lehenagokoak izan.

d) Urteko kontuen kopia bat.

e) Proiektuaren kostuaren eta eskatutako diru-laguntzaren arteko diferentzia zuzenean edo hirugarrenen bidez ordaintzeko konpromisoa jasotzen duen adierazpena.

f) Eskaera egiten duena pertsona fisikoek edo juridikoek, publikoek edo pribatuek, nahiz aurreko pertsonalitatek gabekoek osatutako talde bat baldin bada, eskaeran berariaz adierazi beharko dira taldekide bakoitzak hartutako ekintza-konpromisoak, baita horietako bakoitzari aplikatu beharreko diru-laguntzaren zatia, pertsona onuradunaren kontsiderazio berbera izanzen baitute. Taldearen ordezkari edo ahalduen bakarra izendatu beharko da, taldeari, onuradun gisa, dagozkion betebeharrak betetzeko botere nahikoa izanzen duena.

g) Aitorpen bat, bertan adierazita beste administrazio, entitate edo pertsona publiko zein pribaturi helburu bera lortzeko eskatutako diru-laguntzen eskabideen adierazpena, bertan zehaztuz eskatutako kopurua, entitateen izena eta jasotako zenbatekoa. (Ikusi, behar izanez gero, deialdi honen III. Eranskina).

h) Lekuko bazkidearen edo aurkako alderdiaren nortasun juridikoa akreditatzen duten dokumentuak:

1. Estatutuak.
2. Eraketa legalaren akreditazioa, proiektuaren laguntza jasoko duen herrialdearen legeen arabera.
3. Helbide legal osoa.
4. Ordezkari legalaren egiaztagiria.

i) Proiektuaren memoria eta formatu digitala.

i.1) Proiektuaren kokapen zehatzaren mapak (herrialdea, eskualde-departamentuko mugapena, probintzia eta udalerrria).

i.2) Proiektua egoki ulertzeko, boluntario izaeraz beharrezkoa irizten den adina dokumentu grafiko, tekniko, finantziario eta beste edozein motatako dokumentu aurkeztea.

i.3) Sentsibilizazio-programa zehaztea.

j) Nafarroako erakundeak iazko urtean egindako jardueren memoria, kontabilitatearen egoera eta finantziario-iturriak.

Agiriek jatorrizkoak izan behar dute, edo horien kopia konpultsatuak, edo, bestela, indarreko legeekin bat, jatorrizko izaera duten kopiak.

## **9.- Eskaerak baloratzeko irizpide objektiboak**

Eskaerak zerotik ehunera puntuatuko dira, honako irizpide eta ponderazioen arabera.

Deialdi honetara aurkezten diren diru-laguntza eskaerak bi fasetan baloratuko dira.

Lehenengo fasean, honako irizpide hauek erabiliko dira:

- **Adierazitako informazioa eta proiektuaren kalitate teknikoa:** **40 puntu**
  - Proiektuaren testuinguruari buruz emandako informazioa (herrialdea eta eragin eremua). (5 puntu bitarte)
  - Proposatutako proiektua kokatzen den sektoreari buruzko informazioa (testuingurua, baliabideak, azpiegiturak...). (5 puntu bitarte)
  - Zirriborratutako helburuen eta espero diren emaitzen arteko koherentzia. (15 puntu bitarte)
  - Diru lagundutako jarduera egin ostean proiektuak duen bideragarritasun teknikoa eta iraunkortasuna. (10 puntu bitarte)
  - Proiektuak zonalde horretan garapenerako lankidetzarako egindako beste jarduera batzuekin duen osagarritasuna. (5 puntu bitarte)
- **Eragileen gaitasuna eta harremanen kalitatea:** **23 puntu**
  - Lekuko kontrako alderdiaren esperientzia eta gaitasuna, baita populazio onuradunarekin eta garapenerako lankidetzarako bertako entitate edo instituzioekin duen lotura ere. (5 puntu bitarte)
  - Elkarte sozialek beste elkarte eta/edo instituzioek elkarrekin lan egitea sustatzea (garapenerako batzordeak, mahai sektorialak, etab.). (2 puntu bitarte)
  - Proiektuaren proposamenean, egikaritzean eta kudeaketan pertsona onuradunek duten parte-hartzea. (5 puntu bitarte)
  - Proiektu honeko helburu dituen herritarrentzako esanguratsua den bertako instituzio baten parte-hartzea edo abala. (2 puntu bitarte)
  - GGKE eskatzailearen esperientzia eta jarraipenerako daukan gaitasuna. GGKE eskatzailearen eta lekuko bazkidearen arteko harremana. (5 puntu bitarte)
  - Entitate eskatzailearen gizarte oinarria eta horretan duen parte-hartzea. (4 puntu bitarte)
- **Helburu sozialak eta proiektuaren edukiak:** **24 puntu**
  - Proiektuan genero-ikuspegia txertatzea. Emakumeen bizi-baldintzak hobetzea eta haien eskubide eta aukerak sustatzea. (4 puntu bitarte)
  - Giza eskubideak sustatu eta defendatzea. (3 puntu bitarte)
  - Lanbide-heziketa, bereziki, sektore behartsu edo baztertuetan. (3 puntu bitarte)
  - Antolaketa eta parte-hartzea oinarrizkoa eta komunitarioa izan dadin sustatzea. (3 puntu bitarte)
  - Proiektuak zonaldeko politiketan eta/edo zerbitzuetan izanen duen eragina. (5 puntu bitarte)
  - Ingurumen-inpaktuari buruzko informazioa (beharrezkoa bada). (3 puntu bitarte)
  - Komunitate onuradunen kultura identitatearekiko errespetua bermatzeko ikuspuntua (beharrezkoa bada). (3 puntu bitarte)
- **Aurrekontua:** **10 puntu**



- Gastuaren eraginkortasuna eta koherentzia. (5 puntu bitarte)
- Planteatutako jardueretara egokiturik egotea. (5 puntu bitarte)

▪ ***Kohesioa lankidetzaren deszentralizatuarekin:***

**3 puntu**

- Beste udaletxe edo instituzio batzuek Lankidetzaren Deszentralizatuaren azken bi urteetan diruz lagundutako proiektuak.

Bigarren fasera pasatzeko, proiektuek 60 puntu izan beharko dituzte gutxienez.

Bigarren fasean, eta Garapenerako Lankidetzaren alorrean udalaren laguntza herrialde pobretunei ematea bideratzeko asmoz:

- Lehenengo fasea gainditu duten proiektu guztiei **10 puntu** gehituko zaizkie, baldin eta haien helmugako herrialdea Giza Garapeneraren Indize Baxuaren zerrendan badago.

## ***10.- Eskaerak ebaluatzeko Balorazio Batzordea***

Balorazio Batzorde bat osatuko da eskaerak ebaluatzeko eta honako pertsona hauek osatuko dute:

Lehendakaritza: Alkatea

Batzordekideak:

1. Hiritarrendako Zerbitzuen Batzordeko Lehendakaria
2. Saileko arduradun teknikoa
3. Berdintasun Alorreko arduraduna

Idazkaria: Gizarte Zerbitzuetako Teknikaria

## ***11.- Prozeduraren instrukzioa eta ebazpena***

### ***11.1.- Prozeduraren instrukzioa***

Instrukzio-organoak eskaerak aurrez ebaluatuko ditu eta emaitza hori txosten batean zehaztuko da. Txostenak egiaztatuko du bere esku duen informazioaren arabera pertsona edo entitate onuradunek izaera hori lortzeko beharrezkoak diren baldintza guztiak betetzen dituztela. Instrukzio-organoak espediente hori Balorazio Batzordeari helaraziko dio eskaerak ebaluatu ditzan, deialdi honetan aurreikusitako ebaluazio-irizpide objektiboen arabera.

Balorazio Batzordeak proposamen-txosten arrazoitu bat igorriko du, egindako ebaluazioaren emaitzak zehaztuko dituen. Ebazpen proposamena, behar bezala arrazoitua, instrukzio-organoak egin beharko du, Balorazio Batzordearen espedientearen eta txostenaren arabera, eta Herritarrendako Zerbitzuen Informazio Batzordeari helarazi beharko zaio ebatzi behar duen organo eskudunak irizpena egin dezan.

### ***11.2.- Ebazteko eta jakinarazteko epea:***

Erabakia ebatzi eta jakinarazteko epea, gehienez ere, sei hilabetekoa izanen da, diru-laguntzetarako eskabidea Erregistro Orokorrean onartu den egunetik aitzina. Prozedura ebazteko gehienezko epea ebazpen zehatzik egokitu gabe igaroz gero, eskabidea baztertu dela ulertuko da.

Diru-laguntzak emateko ebazpenak arrazoitua izan beharko du, eta bertan berariaz zehaztuko dira honako hauek: diru-laguntzak jasoko dituzten pertsona edo entitate eskatzaileak, laguntzen zenbatekoak eta, eskaera ezetsirik izanez gero, haien eskatzaileak diren pertsonak edo entitateak.

Diru-laguntzak emateko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio-bideari, eta eskatzaileei jakinaraziko zaie, Administrazio Publikoen Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan agindutakoarekin bat.

Emandako diru-laguntzak Diru-laguntzen Datu Base Nazionalen argitaratu beharko dira, eta kasu bakoitzean adierazi beharko da diru-laguntzaren deialdia, egotzitako programa eta aurrekontu-kreditua, pertsona onuraduna, emandako zenbatekoa eta diru-laguntzaren xedea edo helburua.

## ***12.- Diru-laguntzen xede diren gastuak***

### ***12.1.- Diruz lagundu daitezkeen gastuak***

Diruz laguntzeko moduko gastutzat joko dira diru-laguntzen xede den jarduerarekin ez bairik gabe bat datozenak, hertsiki behar-beharrezkoak direnak eta deialdi honen 12.2 atalean ezarritako epean egiten direnak.

1. Diruz lagundu daitezkeen gastuak honako partida-taldeekin bat etorriko dira:

a) Zuzeneko gastuak:

a.1) Lursailak eta eraikinak erosi edo alokatzea.

a.2) Eraikinak eraiki edo horietan zaharberritzeak egitea, langileak, obraren zuzendaritza, obra-lizentzia eta tasak eta eraikuntza materialak barne hartuta.

a.3) Material-tresneriak eta horniketak, eta tresneria garraiatzeak eragindako gastuak. Honez gain, programa gauzatzeko behar diren materialak eta horniketak.

a.4) Langileen gastuak, honako hauek barne: lansariak eta gizarte aseguruak, esku-hartzeari atxikiriko langileen entitatearen kontu. Bi kategoria bereiziko dira:

–Tokian tokiko langileak: diruz lagundutako esku-hartzea gauzatuko den herrialdeko langileak, hango lan arloko legeriaren mende daudenak. Bertan egiten dute zerbitzu eta haien eginkizunak zuzenean lotuak dira esku-hartzearekin.

–Langile erbestera: entitate onuraduneko langileak dira eta Espainiako legeriari lotuak daude. Ekintza gauzatzen den herrialdean egiten dute zerbitzu eta haien eginkizunak zuzenean lotuak dira ekintzarekin. Kontratu bidezko harremana izanen da.

a.5) Bidaiak, ostatatzea eta dietak. Langileen eta onuradun diren herritarren joan-etorrien gastuak dira, esku-hartzea gauzatzeko behar direnak, hala nola: erregaiak, aseguruak eta esku-hartzea zehaztean berariaz identifikaturik eta haiei loturik dauden ibilgailuen mantentzea.

a.6) Funtzionamendua: ohiko gastuak (argindarra, ura, komunikazioak eta mantentze-lanak, besteak beste) esku-hartzearen eremuan, eskatutako diru-laguntzaren zenbateko osoaren %3 bitarte gehienez.

a.7) Identifikazioa eta ebaluazioa: diruz laguntzen ahalko dira identifikaziotik zuzenean eratorriak; kasu honetan sartzen ahalko dira deialdi hau argitaratu aurreko sei hilabetera arte egindako gastuak. Orobat, diruz laguntzen ahalko dira ebaluazioaren ondoriozko gastuak.

b) Zeharkako Gastuak

Proiektuaren zeharkako kostuengatik %7 edo hortik beherako zenbatekoa aplikatzen ahalko zaio diru-laguntzari. Zeharkako kostuak dira entitate eskatzaileak Nafarroan dituen ohiko funtzionamenduko gastu administratiboak.

2. Gastu finantzarioak, notarioenak eta erregistrokoak, diruz lagundutako jarduerari zuzenean lotuak badaude eta hura prestatu edo burutzeko ezinbestekoak badira.
3. Zizur Nagusiko Udalaren diru-laguntzaren etekin finantzarioak diru-laguntzaren zenbatekoari gehituko zaizkio eta diru-laguntzaren xede den jarduerara bideratuko dira.
4. Zizur Nagusiko Udaletxearen diru-laguntzaren kargura erositako material, ekipamendu eta horniketa guztiak proiektua garatuko den herrialdean eginen dira edota inguruko herrialdeetan eta bertako produktuak erosita. Betebehar hau betetzea ezinezkoa bada, Zizur Nagusiko Udaletxeari baimena eskatu beharko zaio idatzi arrazoitu baten bidez.

### ***12.2.-Diruz lagundu daitezkeen gastuen gauzatze data***

Proiektuaren gauzatze epetik 2020ko abenduaren 31a arte.

Ezarrirako epea luzatzeko eska daiteke, baldin eta justifikanteak aurkezteko data amaitu baino lehen idatziz jakinarazten bada zein diren behar hori arrazoitzen duten zergatiak.

### ***13.- Azpikontratazioa***

Proiektuaren egikaritze osoa edo partziala azpikontratatu daiteke, gehienez ere % 90ean.

### ***14.- Diruz lagundutako jardueren finantziazioa***

Pertsona edo entitate onuradunak diruz lagundutako jarduera estali beharko du, aurkeztutako proiektuaren zenbatekoaren % 20 ordainduta, bere kabuz edo beste baliabide batzuen bidez. Finantziazio horren zenbatekoa, jatorria eta diruz lagundutako jardueran nola aplikatu den justifikatu beharko da.

Finantziatorako kanpoko laguntza gisa, diruz lagundutako jarduerak gauzatzearekin zuzenean loturik dauden pertsona onuradunen lursail, lokal, tresneria, material eta langileen balioespena onartuko da. Kontrako alderdiaren egiztagiriekin egon beharko dira egiaztatuak eta egiaztagiri horretan laguntzaren zenbatekoa, unitate kopurua, lan-orduak eta prezio bateratua (horrela badagokio) deskribatu beharko dira, balioespen osoaz gain. Balioespenek bertako merkatuaren prezioekin bat egingo dute.

### ***15.- Diruz lagundutako jardueraren bateragarritasuna***

Udaleko diru-laguntzak jasotzea BATERAGARRIA da beste edozein administrazio, entitate edo pertsonak xede bererako emandako laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin.

Diru-laguntzaren zenbatekoa, berez edo beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideak gehituta, ezin izango da inola ere diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa izan. Hori gertatuz gero, bidezkoa izango da jasotako gehiegizko dirua itzularaztea, baita dagokion berandutze-interesa eskatzea ere.

Pertsona edo entitate onuradunak organo emaileari adierazi beharko dio jarduera finantzatzen duten beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk eskatu edo jaso dituela. Jakinarazpen hori ahal bezain pronto komunikatu beharko da eta, betiere, jasotako funtsak aplikatzeko egindako justifikazioaren aurretik.

### ***16.- Ordainketa***

Lehenengo urteari dagokion diru-laguntzaren ordainketa organo eskudunak ebazpena eman ostean eginen da, eta aurretiazko ordainketa bakarrean ordainduko da esleitutako zenbatekoaren % 100.

Gainontzeko urteetako ordainketak %100en aurretiazko ordainketa bakarrean egingen dira, udaleko aurrekontuetan ekitaldi bakoitzari dagokion kreditua onartzearen mende dagoen klausula honi erreferentzia egiten dion txosten tekniko eta ekonomikoa aurkeztu ostean.

Pertsona edo entitate onuradunei ezin izanen zaizkie diru-laguntzak ordaindu ez badituzte eguneraturik tributu-betebeharrak zein Gizarte Segurantzarekikoak, edo diru-itzulketaren bidezkoa dela xedatu duen ebazpen batek zorduntzat jotzen baditu.

Hala eta guztiz ere, diru-laguntzaren izaera kontuan hartuta, Zizur Nagusiko Udalak ofizioz jardun dezake diru-laguntzak jaso dituzten onuradunek kobratu gabe dituzten zorrak aurrez kitatzeko, diru-laguntza horiek edo horien zati bat konpentsatuz zordundutako kopuruen bidez.

Diru-laguntzak eman aurretik ez da garantiazko banku abalik eskatzen, izan ere, diru-laguntzak irabazi asmorik gabeko entitateentzako dira, Garapenerako Lankidetzarekin lotutako jardueren humanitarioak garatuko dituztenak eta, horrez gain, deialdi honek diru-laguntzetan eta itzulketetan jasotako zenbatekoen kontrol eta justifikazio mekanismoak ezartzen ditu

## **17.- Justifikazioa**

GGKEk edo elkarteek urteko Justifikazio Txosten bat aurkeztu beharko dute.

Lehenengo eta bigarren urteen amaieratik hilabeteko epean, txosten tekniko eta ekonomiko bana aurkeztuko da proiektuaren gauzatzeari buruz, eta bigarren eta hirugarren urteetarako diru-laguntza eskatuko da, hurrenez hurren

Azken txostena proiektua amaitu eta hilabeteko epean aurkeztu beharko da.

Azken txostena justifikazio kontu baten gisakoa izanen da eta osagai hauek izanen ditu:

- a) Kontuan ageri diren datu guztiak egiazkoak direla dioen erantzukizuneko aitortpena, entitate onuradunaren legezko ordezkariak sinatua.
- b) Proiektua gauzatzeari buruzko txosten teknikoa, eredu ofizialaren arabera, gutxienez helburuak, lorturiko emaitzak eta eginiko jarduerak zehaztuko dituenak.
- c) Proiektuko diru-sarreraren eta gastuen balantzea.
- d) Gastu guztien zerrendak, gastu motaren eta finantzabidearen arabera sailkatuak. Gastu bakoitzean honako kontu hauek agertuko dira: zerrendako agiri zenbakia, frogagiri zenbakia, zer egunetan eman den, igorlearen izena eta helbidea, eta haren identifikazio fiskalerako zenbakia edo antzekoa, kontzeptua, frogagiriaren testua (luzea izanez gero, laburtzen ahalko dena), pagatu den zenbatekoa, bai bertako moneta bai eurotan. Zerrendarekin batera, aurrekontuaren betetze-mailari buruzko laburpen zehatza aurkeztuko da.
- e) Aplikaturako truke-tasak frogatzen dituzten agiriak.
- f) Diru-laguntza han jaso dutela ziurtatzen duen agiria, jatorrizkoa edo kopia konpultsatua, tokian tokiko bazkidearen legezko ordezkariak sinatua.
- g) Beste edozein dokumentazio grafiko nahiz idatzi, borondatez eman nahi dena, diruz lagundutako proiektuaren gauzatzeari edo bilakaera onaren berri emateko.

Gastuen zerrendak frogagiriarekin batera aurkeztuko dira, kasuan kasuko kontrol organoak egiazta dituzan. Gastuak Espainian gertatuz gero, frogagiriak jatorrizko agiriak izanen dira; gainerakoan, fotokopiak, tokian

tokiko bazkideak edo kontraparteak behar bezala kreditatuak. Frogagiriak Nafarroako Foru Komunitateko hizkuntza ofizialetan, gaztelaniaz eta euskaraz, idatzita ez daudenean, bietako edozeinetara itzuli beharko dira.

Finantziatuko diren proiektuak garatuko diren lurraldeetako testuinguru sozial eta geografikoak direla eta, klausula honetan jasotako justifikazio epeak betetzea eragotziko luketen arrazoiak egonez gero, justifikazioa aurkezteko ezarritako epean luzapen bat ematen ahalko da, betiere hirugarren pertsonen eskubideei kalte egiten ez badie. Horretarako, arrazoitzen duten zergatiak jakinarazi beharko dira, idatziz eta dagokion txostena aurkezteko epea amaitu aurretik, Zizur Nagusiko Udaletxeko Herritarrendako Zerbitzuaren Alorrean.

### **18.- Dirua itzultzeko arrazoiak**

Diru-laguntzaren onuradunek jasotako zenbatekoaren kopuru osoa edo partziala itzuli beharko dituzte, baita diru-laguntzaren ordainketaren momentutik dagokion berandutze-interesak exijitzen duena ere, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Foru Legearen 37. artikuluan aipatzen diren kasuren bat gertatuz gero, edota atal horretan ezartzen diren baldintzetan aipatutako kasuren bat gertatuz gero.

Dirua itzultzeko arrazoi zehatzak:

- Interbentzioaren markoan zehaztutako emaitzak eta jarduerak egiteko hartutako konpromisoa ez betetzea, partzialki edo guztiz.
- Justifikazioaren betebeharra ez betetzea edo behar adinako justifikaziorik ez egitea.
- Diru-laguntza jasotzea horretarako beharrezkoak diren baldintzak bete gabe.
- Diru-laguntzen ematerakoan zehaztutako helburuak ez betetzea.
- Cuando los gastos no se realicen por cualquier causa o se modifcasen sustancialmente sin autorización expresa del Ayuntamiento de Zizur Mayor-Zizur Nagusia.
- Finantziatutako entitateari diru-laguntza emateko ezarritako baldintzak ez betetzea.
- Jasotako ondasunak diru-laguntza emateko zehaztutako xede zehatzera bideratzearen betebeharra ez betetzea.

### **19.- Errekurtsoen erregimena**

Deialdi honen aurka, baita oinarri hauen aurka eta haiek betearazteko hartzen diren administrazio ebazpenen aurka ere, errekurtsio hauetako edozein aurkezten ahalko da, hautara:

–Berraztertze errekurtsioa, administrazio egintzaren egile den organoari berari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, bestela, argitara eman eta biharamunetik hasita.

–Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratzen denetik hasita.

–Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunean hasiko da kontatzen epe hori.

Zizur Mayor-Zizur Nagusian, 2017ko urrian

**I. ERANSKINA**  
**ESKABIDE-EREDUA**

..... jaunak/andreak, helbidea  
.....-n duenak, NAN zenbakia  
....., Telefono-zenbakia .....,  
eta Faxe ..... Berez edo, baldin badagokio, pertsona hau ordezkatzuz:  
..... jaun/andrea,  
helbidea ....., NIF zenbakia .....,  
Telefono-zenbakia..... eta Faxe .....

**Diru-laguntzak lortzeko deialdi honen berri izanik, 2018-2020 urteetan Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren proiektuak egiteko, NAOko ..... zenbakian, data honetan ..... argitaratua**

**ESKATZEN DU:** honako agiri hauek atxikita dituen eskabidea aintzat hartzea:

- Eskatzailearen nortasuna egiaztatzen duten agiriak eta, behar izanez gero, eskatzailearen ordezkari den pertsonarena ere.
- Erantzukizun aitortpena, deialdi honen II. Eranskina eredutzat hartuta, ziurtatzeko pertsona edo entitate eskatzaileak indarrean dagoen legeriak eta deialdi honek galdegiten dituzten baldintzak betetzen dituela, eta ez duela inolako debeku-ziok ukitzen onuradun izaera eskuratzeko.
- Egiaztapen bat, ziurtatzeko pertsona edo entitate eskatzaileak bere tributu-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela.
- Aitorpen bat, bertan adierazita beste administrazio, entitate edo pertsona publiko zein pribaturik helburu bera lortzeko eskatutako diru-laguntzen eskabideen adierazpena, bertan zehaztuz eskatutako kopurua, entitateen izena eta jasotako zenbatekoa. (III. Eranskina).
- Diru-laguntza eskatzen duen proiektu/ekintza/jokaera/jardueraren deskribapena jasotzen duen memoria. Deialdi honen 8.4. atalean adierazitako dokumentazioa.

Horrela ager dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, honako hau igorri eta sinatzen dut,

.....-n, 2017ko .....aren .....(e)(a)n

**(Sinadura)**

## II. ERANSKINA ERANTZUNKIZUNPEKO ADIERAZPENA

..... jaunak/andreak,  
jakinarazpenetarako helbidea .....-n duenak,  
NAN zenbakia ....., Telefono-zenbakia .....,  
Faxa ..... eta e-maila ..... Berez edo, baldin badagokio, pertsona hau  
ordezkatuz: ..... jaun/andrea,  
helbidea.....-n duena, NIF zenbakia  
..... Telefono-zenbakia ..... eta Faxe  
..... eta, **2018-2020 urteetan garapen bidean dauden herrialdeetan  
garapenerako lankidetzarako hiru urteko proiektuak egiteko, norgehiagoka erregimenean, diru-  
laguntzak lortzeko deialdi honen berri izanik**

### AITORTZEN DU:

---

- Que Onuradun izaera eskuratzeko, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean ezartzen diren baldintza orokorrak betetzen dituela, baita deialdi honetan zehazki eskatutakoak ere.
- Ez duela onuradun izaera eskuratzeko Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 13.2. artikuluan ezartzen diren debeku-zio batek ere ukitzen.
- Tributu-betebeharrak zein Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela ezagun duela.
- Konpromisoa hartzen duela eskatutako diru-laguntzen zenbatekoa eskaeraren ebazpena oinarritzen duten xede eta jardueretan erabiltzeko.

Horrela ager dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, honako hau igorri eta sinatzen dut,

Zizur Mayor - Zizur Nagusian, 201...ko .....aren .....(e)(a)n

(Sinadura)

**III. ERANSKINA**  
**XEDE BERERAKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERAREN ERANTZUNKIZUNPEKO**  
**ADIERAZPENA**

..... jaunak/andreak,  
jakinarazpenetarako helbidea .....-n duenak,  
NAN zenbakia ....., Telefono-zenbakia .....,  
Faxa ..... eta e-maila ..... Berez edo, baldin badagokio, pertsona hau  
ordezkatuz: ..... jaun/andrea,  
helbidea.....-n duena, NIF zenbakia  
..... Telefono-zenbakia ..... eta Faxa  
..... eta, **2018-2020 urteetan garapen bidean dauden herrialdeetan**  
**garapenerako lankidetzarako hiru urteko proiektuak egiteko, norgehiagoka erregimenean, diru-**  
**laguntzak lortzeko deialdi honen berri izanik**

**Eskatutako diru-laguntzaren arabera, AITORTZEN DU:**

- Ez duela inolaz ere diru-laguntzarik eskatu edo jaso deialdi honen xede bererako beste Administrazio Publiko, entitate publiko edo pribatu edota partikular nazional edo nazioarteko batzuegandik.
- Honako diru-laguntza hau eskatu diela deialdi honen xede bererako beste Administrazio Publiko, entitate publiko edo pribatu edota partikular nazional edo nazioarteko batzuei:
- Honako diru-laguntza hau jaso duela deialdi honen xede bererako beste Administrazio Publiko, entitate publiko edo pribatu edota partikular nazional edo nazioarteko batzuegandik:

**Eskatutako diru-laguntzak: (Adierazi data, entitatea eta zenbatekoa)**

**Jasotako diru-laguntzak: (Adierazi data, entitatea eta zenbatekoa)**

Zizur Mayor - Zizur Nagusian, 2017ko .....aren .....(e)(a)n

(Sinadura)